

PRESIDENTEA
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2015eko IRAILAREN 24an EGINIKO
OHIKO BILERAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Josu Artetxe
Lauren Uria
Esteban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente
Xabier Artiñano

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hamabosteko uztailaren hogeita hiruan, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilkura egiteko. Alkatea Gentza Alamillo Udaeta jauna da mahaiburua eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongi etorria eman die osoko bilkurara bertaratu direnei eta, ohar gehiagorik gabe, ohiko bilkurako gai-zerrendan dauden puntuak eztabaidatu eta bozkatu dituzte:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2015ko uztailaren 23an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bertaratutako korporazioko kideek aho batez onetsi dute akta.

2.- Onestea, bidezkoa bada, laguntza-programen lankidetzaren hitzarmena, “Bono-Taxi”aren bitartez mugikortasun-urritasun larriak dituzten pertsonen ordezko garraiobide bat eskaintzera zuzendutakoa, 2015. urterako.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, bozketa egin da eta aho batez onetsi da.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundia eta Aiarako Udala 2007. urtetik elkarlanean ari direla, laguntza-programa baten kudeaketan, mugikortasun-urritasun larriak dituzten pertsonen ordezko garraiobideak eskaintzeko, bono-taxiaren erabileraren bitartez.

IKUSI DA.- 2012ko otsailaren 21ean sinatutako hitzarmenaren azken luzapenaren indarraldia amaitu ondoren, bidezkotzat hartzen dela berri bat sinatzea, eta garatutako programa mantentzea, zerbitzuarekin jarraitzea eta konpromisoak eguneratzea.

IKUSI DA.- 2015eko irailaren 15eko Gizartea eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordearen aldeko txostena.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI** du:

Lehenengoa.- Onartzea, Arabako Foru Aldundiaren eta Aiarako Udalaren arte Lankidetzaz Hitzarmena, mugikortasun-urritasun larriak dituzten pertsonen ordezko garraiobideak eskaintzera zuzendutako programa mantendu, garatu eta jarraitzeko. Hitzarmena, bono-taxiaren programako oinarri arautzailetan aurreikusitakoarekin bat etorritik egingo da.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari dokumentu hori sinatzeko ahalmena ematea.

Hirugarrena.- Arabako Foru Aldundiari akordio honen berri ematea, sina dezan.

3.- Onartzea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta buru-gaixotasuna duten pertsonen eta senideen Aiarako Elkartearen (ASASAM) arteko Lankidetzaz Hitzarmena, 2015. urterako.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bozkatu eta aho batez onetsi da.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- ASASAM irabazi-asmorik gabeko elkarteak Aiarako Eskualdean egiten duen lana, Udalerriko hainbat pertsonari mesede egiten diena, sustatu eta elkarrekin lan egiteko udal- interesa.

IKUSI DA.- ASASAM elkartearen eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz-hitzarmena, aipatutako elkartearen urteko ekintzen gastuen zati bati diru-laguntza ematekoa.

IKUSI DA.- 2015eko irailaren 15eko Gizartea eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordearen aldeko txostena.

AINTZAT HARTU DA.- 2015eko aurrekontuan, hitzarmen honek adierazten dituen gastuei aurre egiteko nahikoa diru dagoela.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI** du:

Lehenengoa.- Onartzea Aiarako Udalaren eta buru-gaixotasuna duten pertsonen eta senideen Aiarako elkartearen (ASASAM) arteko Lankidetzaz Hitzarmena, 2015. urterako.

Bigarrena.- Alkateari aipatutako hitzarmena sinatzeko baimena ematea.

Hirugarrena.- ASASAMi akordio honen berri ematea, eta, horretarako, bi kopia eranstea, horietako bat behar bezala sinatuta itzultzeko.

4.- Onartzea, bidezkoa bada, Artziniega, Aiara, Okondo, Urkabustaiz eta Valdegovía/Gaubeako Udaletako Bake Epaitegietako Idazkaritzak elkartzea, Idazkaritza bakar batek kudeatu ditzan.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bozkatu eta aho batez onetsi da.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Aiara, Artziniega, Okondo, Urkabustaiz eta Valdegovía/Gaubeako Udaletako Bake Epaitegietan (Amurrioko barruti judizialekoak) dagoen lanari eta langile-beharrei eta guztiak elkartzeko beharrari buruzko txostena, Idazkaritza batek soilik kudeatu ditzan.

IKUSI DA.- 2015eko Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Araudia eta Kontuak Informazio Batzorde Bereziaren aldeko txostena.

AINTZAT HARTU DA.- Betetzen dela Bake-epaitegietan justiziarri buruzko abenduaren 22ko 411/1998 Dekretuko 20. artikulua xedatutakoa, 7.000 biztanletik gora izateko baldintzak, barruti judizial berekoak izatekoa (Amurrio) eta Udalen arteko komunikazio-bide egokiak edukitzeko baldintza.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI** du:

Lehenengoa.- Udalaren aldeko nahia adieraztea, Aiarako Bake Epaitegia Aiarako Bake Epaitegietako Idazkaritzen elkartearen parte izatekoa. **AIARA, ARTZINIEGA, OKONDO, URKABUSTAI eta GAUBEAKO** Udalekin batera osatuko da eta elkartearen burutza Aiarako Udaleko lokaletan egongo da.

Bigarrena.- Alkate-udalburu jaunari baimena ematea akordio hau gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentuak formalizatzeko, Udalaren izenean eta ordezkartzan.

Hirugarrena.- Akordio honen berri ematea Bake Epaitegietako Idazkaritzen elkartea osatzen duten udalei eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailari.

5.- Hasieran onestea, bidezkoa bada, Aiarako udal-antolamenduaren Arau Subsidiarioen 6. aldaketa puntuala

Josu jaunak (BILDU) esan du Done Bikendiko urbanizazioak sarbide-arazoak dituela eta, hori dela eta, 6. aldaketaren sektoreko urbanizazioaren bitartez arazo horiei konponbidea bilatzea proposatu du.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du bizilagunei esan zaiela urbanizazioaren pareko lur-sailean elkargune bat egiten saiatuko direla, Aldundiarekin batera, erdigunearekin lotura bat adosteko helburuarekin.

Halaber, esan du bizilagunen ekarpenak Aldundira igorriko direla, dauden aukerak aztertzeko.

Lauren jaunak (BILDU) esan du, orain arauak aldatzerakoan eta etxebizitzaren % 40a babes publikoko erregimenean eraikitzean, hori kudeatu egin beharko dela, araudi bat egin. Hori dela eta, begiratzen hasteko eskatu du, irizpide sozialak eta bestelakoak sartzeko.

Gentza jaunak esan du hori guztia aztertuko dela.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

AINTZAT HARTU DA.- Hirigintza, Lan eta Zerbitzuak eta Ingurumena Batzordeak 2015eko irailaren 15eko bilkuran emandako aldeko ebazpena.

AINTZAT HARTU DA.- Lurzoruaren araubideari eta hiri-antolamenduari buruzko legearen testu bateratuak, ekainaren 26ko 1/992 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsitakoak, 114-1 eta 128-1 artikuluetan ezarritakoa, eta Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko Legeko 90. artikulua zein ondorengoek eta 104. artikulua ezartzen dutena.

AINTZAT HARTU DA.- Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 85.3 artikuluan xedatutakoa.

Udalbatza Osoak aho batez **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Hasiera batean onestea Udaleko Arau Subsidiarioen 6. aldaketa puntuala., Alday Ongintza Fundazioak hala eskatuta.

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai egoteko 45 laneguneko informazio-epea zabaltzea, eta iragarkiak ALHAOn eta eskualdean hedadura handiena duten egunkarietako batean argitaratzea. 45 laneguneko epea iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hasiko da zenbatzen, eta tarte horretan, interesdunek Udal Idazkaritzan izango dute eskura dokumentazio osoa, berau jendaurreko ordutegian aztertzeko eta egokitzen jotzen dituzten alegazio eta iradokizun guztiak aurkezteko.

Hirugarrena.- Onespen-, baimen- eta lizentzia-emakida guztiak bertan behera uztea onestea, gehienez ere urtebetez, aurreikusitako xedapen berriek indarrean dagoen hirigintza-erregimena aldatzea dakarten esparruetan.

Laugarrena.- Arespalditzako Administrazio Batzarri eta aldaketa honen eraginpean dauden administrazio sektorial eta publikoei eta URA, Uraren Euskal Agentziari eta Arabako Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio Sailari (Errepide Zerbitzua) akordio honen berri ematea, txostena emateko.

6.- Onartzea, bidezkoa bada, “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea” obraren zortzigarren ziurtagiria, 2015eko uztaileko. Guztira 11.277,58 euro dira (BEZa barne).

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

AINTZAT HARTU DA.- Udalbatza osoaren 2014ko azaroaren 17ko ebazpenaren bidez, ERAIKUNTZA BIRGAIKUNTZA ARTAPENA, SL enpresari esleitu zitzaion “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea” obra exekutatzeko kontratua, honako zenbateko honetan: 635.642,68 € eta BEZari dagozkion 133.484,96 €.

IKUSI DA.- Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresak aurkeztutako 8. ziurtagiria eta faktura, 11.277,58 eurokoa (BEZa barne).

AINTZAT HARTU DA.- Obra-zuzendari D. P. O. jaunak emandako oniritzia.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI** du:

LEHENENGOA.- Onestea Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresak igorritako zortzigarren ziurtagiria. Guztira 11.277,58 euro dira (BEZa barne). Bestalde, aipatutako gastua onestea.

BIGARRENA.- Diruzaintzari agintzea 11.277,58 euro ordaintzeko Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresari.”

7.- Onartzea, bidezkoa bada, “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea” obraren 9. ziurtagiria, 2015eko abuztukoa. Guztira 59.710,75 euro dira (BEZa barne).

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

AINTZAT HARTU DA.- Udalbatza osoaren 2014ko azaroaren 17ko ebazpenaren bidez, ERAIKUNTZA BIRGAIKUNTZA ARTAPENA, SL enpresari esleitu zitzaion “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea” obra exekutatzeko kontratua, honako zenbateko honetan: 635.642,68 € eta BEZari dagozkion 133.484,96 €.

IKUSI DA.- Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresak aurkeztutako bederatzigarren ziurtagiria eta faktura, 59.710,75 eurokoa (BEZa barne).

AINTZAT HARTU DA.- Obra-zuzendari D. P. O. jaunak emandako oniritzia.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI** du:

LEHENENGOA.- Onestea Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresak igorritako bederatzigarren ziurtagiria. Guztira 59.710,75 euro dira (BEZa barne). Bestalde, aipatutako gastua onestea.

BIGARRENA.- Diruzaintzari agintzea 59.710,75 euro ordaintzeko Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresari.”

8.- Udalbatza Osoari organo kontu-hartzailearen txostenaren berri ematea, diruzaintzaren gerakinaren erabilerari dagokionez aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearen ondorioetarako.

Ez da gaiari buruz beste ezer esan, eta Udalbatza kontu-hartzailearen txostenaren jakinaren gainean dago.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2014ko likidaziotik ateratako gastu orokorretarako diruzaintzaren gerakinaren zati bat erabiltzeko beharra, gastuetarako partidak sortzeko edo jada daudenak handitzeko edo 2016. urterako utzi ezin diren ezinbesteko ordainketak egiteko.

IKUSI DA.- 2015eko irailaren 15eko idazkariaren eta kontu-hartzailearen txostena, gastuak gastu orokorretarako diruzaintzaren gerakinaren bidez finantzatzean egonkortasuna ez betetzearen ondorioei buruzkoa, .

AINTZAT HARTU DIRA.- Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauko 7.1 eta 7.3 artikulua, 17/2014 Foru Arauko emandako idazketan.

Udalbatza Osoa organo kudeatzaileak 2015eko irailaren 15ean emandako txostenaren jakitun geratu da, gastuak gastu orokorretarako diruzaintzaren gerakinaren bidez finantzatzean aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearen ondorioei buruzkoa, .

9.- Behin betiko onestea 2014ko Kontu Orokorra.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Araubidea eta Kontuak Batzorde Bereziak 2015eko uztailaren 28an eman zuen 2014ko Kontu Orokorraren aldeko irizpena, eta jendaurrean ikusgai egon zen; zehazki, 2015eko abuztuaren 10eko 93 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen horri zegokion iragarkia.

Jendaurrean ikusgai egoteko epea igaro da eta ez da erreklamaziorik aurkeztu; beraz, Udalbatzak honako hau **ERABAKI DU**, aho batez:

Lehenengoa.- Onestea erakunde honen Kontu Orokorra, 2014ko ekitaldiari dagokiona.

Bigarrena.- Berrestea Ondasunen Inbentarioa, Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudiko 31. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

10.- Babestea, bidezkoa bada, Arabako Foru Aldundiak A-624 errepideko – Ibaizabal auzoaren parean– autobus-geltokia kentzeko hartutako erabakiaren aurka Llanteno Administrazio Batzarrak aurkeztutako idatzia.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) proposatu du Llanteno Administrazio Batzarraren idatziari Udalbatzaren babesa adieraztea. Horrez gain, Aldundiari Luiaondoko hainbat erabiltzailearen aldarrikapena jakinaraztea, Arbol Malatoko geltokia kentzeagatik eta eskatzea geltoki hori berriz jartzeko. Egon ziren hainbat arrazoibide, baina ez dira kontuan hartu.

Nerea andreak (BILDU) galdetu du ea alegazio horiek dokumenturen batean jaso diren.

Gentza jaunak erantzun du ez dakiela Udalak bere garaian alegazioak egin ote zituen eta Luiaondoko Administrazio Batzarrak emandako epean alegazioak aurkeztu zituela adierazi du, baita hainbat partikularrek ere.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, bozkatu eta Llanteno Administrazio Batzarrak aurkeztutako idatzia aho batez onartu dute Udalbatzako kideek.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Llanteno Administrazio Batzarrak aurkeztutako idatzia, Arabako Foru Aldundiak A-624 Errepideko –Ibaizabal parean– autobus-geltokia kentzeko hartu duen erabakiarekin bat ez datozela adierazten duen idatzia. Izan ere, erabiltzaileak Menagarairaino edo Artziniegaraino joan behar dute garraio publikoa erabili ahal izateko.

IKUSI DA.- 2015eko irailaren 8ko Administrazio Batzordeekiko Harremanen Informazio Batzordeak emandako aldeko irizpena.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI** du:

Lehenengoa.- Babestea Llanteno Administrazio Batzarrak aurkeztutako idatzia, Arabako Foru Aldundiak A-624 Errepideko –Ibaizabal parean– autobus-geltokia kentzeko hartu duen erabakiarekin bat ez datozela adierazten duen idatzia. Izan ere, erabiltzaileek Menagarairaino edo Artziniegaraino joan behar dute garraio publikoa erabili ahal izateko.

Bigarrena.- Halaber, adostasun eza adieraztea Luiaondoko Arbol Malatako autobus-geltokia kentzeagatik.

Hirugarrena.- Arabako Foru Aldundiaren Garraio Zerbitzuari akordio honen berri ematea, eta aipatutako autobus-geltokia berriz jartzeko eskatzea.

Laugarrena.- Llanteno Administrazio Batzarrari akordio honen berri ematea.

11.-Europar Batasunera iritsi diren errefuxiatuei buruzko Erakunde Adierazpena.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du, zuzendari nagusiaren jakinarazpen bat jaso zuela, baliabideak eskura jartzeko, errefuxiatuen harrera posible batetarako. Udaletik adierazi zaie larrialdi sozialetarako pisu bat erabiltzeko moduan dagoela.

Josu jaunak (BILDU) adierazi du aldarrikapen horri puntu bat gehitu nahi diola, guztiok, Europar Batasunak, dugun ardurari buruzkoa, eta paragrafo hau irakurri du, eta Erakunde Aldarrikapenean gehitzeko eskatu du:

“Europar Batasunak erantzukizun argiak ditu Ekialde Ertainaren ezegonkortzean, errefuxiatuen exodoaren jatorrian. Hori dela eta, estatu kideetako buru eta gobernuetara krisi humanitario honi erantzun aktibo bat emateko eskatu behar zaie, elkartasunetik eta justizia humanitariotik, eta, horrez gain, beharrezkoak diren baliabideak eskura jartzeko eskatu behar zaie, gerra horietatik ihesi doazen edo drama humanitarioekin aberasten diren mafien biktima diren pertsona horiek hartzeko.

Udalbatzako kideek, aho batez onartu dute puntu hau aldarrikapenean sartzea.

Bozkatu egin da eta Udalbatzako kideek aho batez onartu dute.

ERAKUNDE ALDARRIKAPENAREN PROPOSAMENA

Europar Batasunak erronka erraldoiei aurre egin behar die egunotan. Besteak beste, errefuxiatuen ihesak eragin duen tragedia humanitariaoa. Milaka pertsona dira, etsipenak bultzatuta, Siria, Irak, Afganistan eta Afrikako hainbat herrialdetan bizi diren gazteak armatuen

eragin beldurgarrietatik ihesi doazenak. Drama horrek II. Mundu Gerraz geroztik gure kontinentean ezagutu ez diren proportzioak hartu ditu egunotan.

Europar Batasunerantz abiatzen den errefuxiatu kopuruaren igoera esponentzial hau izaera konplexu eta askotarikoa duen arazo orokorra da. Arazo honen erdian arriskuan jartzen da mundu honetan baliorik handiena duena, gizabanakoen bizitza, alegia. Eta, horrela izanda ere, talde populista eta xenofoboek nolabaiteko pizkundea eragiten da eta arriskuak planteatzen dira Batasunaren eta Schengen esparruarentzat. Arazo hau, ondorioz, Europar Batasunari egitasmo batu bihurtzeko orduan planteatzen zaion arronkarik handienetakoa da.

Errefuxiatuak horren kopuru handitan eta masiboki iristeak europar herrialde guztiei eragiten die, baina arazo horiek konpontzeko erantzunak Estatuak ezin dituzte beren kabuz eta era isolatuan eman. Aldi berean, erabat okerrak eta emaitzarikgabeak izan dira Europar Batasunak orain arte aldirik aldi gure kontinenterantz abiatu diren eta une honetan iraunkor bilakatu diren migrazio olatuen aurrean hartutako neurriak.

Arazo larri honek ezinbestean behar du premiazko neurriak hartzea, baina aldi berean, Europa mailako neurriak hartu beharko dira gertakizun dramatiko honi aurre egiteko, agerian geratu baita fenomenoak luzaro geratzeko etorri dela.

Argi eta agerikoa da, beraz, Europar Batasunak agenda politiko batua eraiki behar duela, arazo handi honi arreta zentzuzko eta logikoa emateko. Agenda politiko hau europar arima piztu eta elikatu duten baloreetan oinarritu beharko da: gizatasuna, solidariotasuna eta erantzukizuna. Balore horiek europar esparrua erakargarri egin dute gure inguruan gatazka armatuen eta guden ondorioz sortzen diren izu ikarak sufritzen dituzten pertsonentzat. Balore horiek adierazten dira, besteak beste, Europar Batasunaren Tratatuan babes eskubideari buruz aurreikusten diren xedapenetan (3.2 artikulua) eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartan (18. eta ondorengo artikulua). Europar Batasunak printzipio horiek behar bezala betetzeko neurriak hartu behar ditu. Babesari eta immigrazioari buruzko europar politika batua da, beraz, kontinentean hartzen dugun esparru honetan gatazka humanitario ikaragarri honetan eman daitekeen erantzun zuzen bakarrak.

Europar Batasunak erantzukizun argia du Ekialde Ertaineko eskualdeen ezegonkortasunean, errefuxiatuen exodoaren jatorrian Hori dela eta, estatu kideetako gobernuak eta euren buruei krisi humanitario honi erantzun aktiboa ematea eskatzen zaio, elkartasunetik eta justizia humanitariotik. Eta, horrez gain, gerra horietatik ihesi edo drama humanitario hauekin aberasten diren mafien biktima diren errefuxiatuen eskura beharrezkoak diren baliabideak jartzea.

AIARAKO Udalak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Europar Batasunari eskatzea babes- eta immigrazio-politikak batzeko printzipioa betetzea, Europar agenda osatuz, besteak beste, honako hauek aurreikusiko dituenak: babesa emateko europar sistema bideratzea, Europari babesa eskatzen dioten pertsonen sarbide segurua emateko bisatu humanitarioak, gatazka-egoeran dauden herrialdeen mugakide diren

esparruetan europar babesaren eskatzeko eskariak kudeatzeko harrera-zentroak irekitzea, europar herrialde ezberdinetan errefuxiatu-kuotak banatzeko irizpidea eta sistema definitzea eta Babesaren emateko Europar Agentziari (EASO) ematen zaizkion baliabide finantzarioak handitzea Mediterraneo aldeko herrialdeetan eta bereziki Grezian eta Italian, eta etorkinak babesteko eta erreskatatzeko Frontex sistemarako (Triton eta Poseidon eragiketarako).

Bigarrena.- Espainiako Gobernuari eskatzea irailaren 14an Europar Batasunean egingo den gailurrean –Estatuetako agintari gorenekin egin beharko litzatekeena– immigrazioari eta babesari buruzko europar politika bateratua martxan jartzeko eta, aldi berean, hitza emateko Batasunak errefuxiatuak hartzeko ezarriko duen derrigorrezko kuota onartuko duela.

Hirugarrena.- Eusko Jaurlaritzari eskatzea, bere zuzendaritzapean eta Foru Aldundiekin eta Eudelekin koordinatuta, Euskadin errefuxiatuak hartzeko eta dagozkion laguntza ekonomikoak bideratu ahal izateko jarduera-plana egitea.

12. Onestea, bidezkoa bada, BABIO Guraso Elkarteak eskatuta, eskola-garraioan dagoen arazoari buruzko eskabidea babestea.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du Guraso Elkartearen datuak igorriko direla eta arazoari konponbidea emateko eskualde mailan lan egiteko konpromisoa hartuko duela.

Nerea andreak (BILDU) esan du abiapuntua dela garraio publikoarekin arazo bat dagoela, ikasleei eragiten diena. Ikastolara eramateko zuten eskubidea galdu dute eta Sailari zerbait eskatu zaion arren, eta bere aldetik konpromiso bat egon zen arren, oraindik ez da ezer egin gaia konpontzeko.

Nerea andreak jarraitzen du esaten Guraso Elkarteak batzorde bat osatzeko eskatu duela, gaia aztertzeko, Eusko Jaurlaritzak onartutako azken dekretuak ez baitu eskubide hori bermatzen.

Gentza jaunak adierazi du Udalak eskubide hori defendatzen jarraitu duela, orain arte egin den bezala.

Josu jaunak (BILDU) esan du gaia Eusko Jaurlaritzarekin aztertu dela eta eman duten irtenbide bakarra dela gaia batzorde zehatz batean lantzea, baina oraindik hori ez dela abian jarri. Uste dugu ez dagoela ezer aztertzeko, gaia begien bistakoa da. Arazoa luzatzen ari da. Aiarako kasua, sakabanatzea dela-eta, berezia dela aldarrikatu behar da.

Gentza jaunak esan du gobernu-taldeak hori defendatzen jarraitu duela eta bide horretan, behar den tokiraino joango direla defendatzera.

Azkenik, Udalbatzak batzorde bat eratzea adostu du gaia aztertzeko. Batzorde hori, talde politiko bakoitzeko ordezkari batek, Etxaurren Ikastola Guraso Elkarteko ordezkari batek eta BABIO Guraso Elkarteko beste batek osatu dute.

Gentza jaunak adierazi du, lehenengo pausu garrantzitsua egoeraren erradiografia bat egitea dela, garraioaren errealitatearena, eta hobetzen saiatzea.

13.- Bilduk aurkeztutako mozioa, "Herriko Tabernei" buruzko Auzitegi Gorenaren 35/02 Ebazpenari buruzkoa eta EAJ-PNVk aurkeztutako zuzenketak.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du Batzordean zintzilik geratu zela Bilduren aldetik mozio bateratu bat bidaltzea, ondoren bilkuran onartua izan zedin, eta oraindik ez dela bidali.

Josu jaunak (BILDU) adierazi du harrigarria dela EAJ-PNV taldeak mozio honi babesa ematea zuzenketa bat aurkeztuz. BILDUren mozioaren oinarria eta EAJ-PNVren zuzenketaren puntuak planteatzea proposatu du.

Gentza jaunak esan du Batzordean eskatu zela mozio bateratu hori bidaltzea, bilkuraren aurretik aztertzeko eta, beraz, dagoena mantendu beharko dela.

Beste aipamenik egon ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta honako hau izan da emaitza:

Aldeko botoak: 4 BILDU
Kontrako botoak: 5 (EAJ-PNV)
Abstentzioak: 2 AB

Jarraian, EAJ-PNVk aurkeztutako zuzenketari buruzko bozketa egin da eta honako hau izan da emaitza:

Aldeko botoak: 5 (EAJ-PNV)
Abstentzioak: 6 (4 BILDU, 2 AB)

Hortaz, gehiengo sinplez EAJ-PNVk aurkeztutako zuzenketa onartu da eta honako hau dio:

Gentza Alamillo Udaeta jaunak, Aiarako Udaleko EAJ-PNV udal-taldeko bozeramaileak, indarrean dagoen araudiaren babesean, BILDUK Herriko Tabernei buruz aurkeztutako mozioaren ZUZENKETA hau aurkeztu du.

EAJ-PNVk uste du publiko egin den epaia, Herriko Tabernen kasuari buruzkoa, iraganeko epaia dela, salbuespenean eutsitakoa eta oinarrizko argudio gisa “dena ETA da” duena, eta horiek inoiz partekatu ez ditugun irizpideak dira.

EAJren ustez, epai hori atzerapauso bat da Euskadik bizi duen politika-normalkuntzaren prozesuan. Ez dugu ulertzen prozedura bideratzen hasi eta hamabi urtetara epai-erabaki desberdina egotea eta batzuk zigortzea eta beste batzuk absolbitzea, itxuraz berdinak diren kasuetan.

Zentzu horretan, sinestezinak dira erabilitako irizpide desberdinak. Guztia ETA bazen, nola ulertzen da batzuk zigortzea eta beste batzuk ez?.

EAJ-PNVn Auzitegi Nazionaleko erabakian bultzada politiko bat ikusten dugu berriz, jada desagertuta egon beharko litzatekeen bultzada. Hori dela eta, uste dugu iraganeko inertziak gainditzeko garaia dela eta Euskadin bakea eta bizikidetzaren lortzeko lan egiteko sasoa.

ZUZENKETA.

1.- Aiarako Udalak 35/02 sumarioari uko egiten dio, erabat, eta berehala artxibatzeko beharra ikusten du.

2.- Aiarak Udalak egoera politiko berria dagoela aitortzen du eta iraganeko ekintzak gogorarazten dituzten ekintzak errotik kentzeko eskatzen du, bizikidetzaz hobetzeko eta bakerantz pauso sendoak emateko.

3.-Aiarako Udalak akordio honen berri emango dio Estatuak Euskadin duen Gobernuako Delegazioari.

14.- Onestea, bidezkoa bada, “Zaborra batzeko zerbitzu publikoa emateagatiko tasa” arautzen duen ordenantzaren aldaketa.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du araudiak jasotzen duela zaborren tasek zerbitzuaren kostuaren % 100 estali behar dutela, aurreko Batzordeetan esan bezala. Aiarako tasen errealitatea, helburu hori betetzetik nahiko urrun dago; horrez gain, orain Gardeleguin bota behar da zaborra, hortaz, zerga igo egin da. Batzordean azaldu zen bezala, proposamen bat aurkeztu da, hiru urtetan zerbitzuaren kostuaren % 100 betetzeko, gaur egun ditugun datuekin.

Josu jaunak (BILDU) adierazi du bere talde politikoa proposamen horrekin ados dagoela.

Iraida andreak (AB) esan du batzordean teknikariari galdetu zitzaiola ea beharrezkoa zen eguneraketa hori % 100era iristeko hiru urtean eta berak esan zuen epea ez zela beharrezkoa; hori dela eta, Aiara Batuzek proposatu zuen igoera modu lineal batean egitea eta urte gehiagotan.

Gentza jaunak esan du 2016an kostua pixka bat igo behar denez, Gardeleguin botatzeagatiko tasa dela-eta, beharrezkoa dela tasaren igoera handiagoa gaur egungo finantzaketa-ehuneko baxuagoan ez geratzeko.

Iraida andreak adierazi du 2016an 2015eko ehuneko berrian geratzea proposatu zuela eta sentsibilizazio-kanpainak egitea.

Inork ez du horri buruzko ezer esan; beraz, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 9 (5 EAJ-PNV eta 4 BILDU)

Kontrako botoak: 2 AB

15.- Honako hauen berri ematea:

- 2015eko apirileko, maiatzeko, ekaineko eta uztaileko kontaketa-aktak.

- 2015eko apirileko, maiatzeko, ekaineko, uztaileko eta abuztuko gastu eta sarreraren balantzea.

- 2015ko apirileko, maiatzeko, ekaineko, uztaileko eta abuztuko kartillen egoera.

- 2015eko apirileko, maiatzeko, ekaineko, uztaileko eta abuztuko kreditu-aldaketak.

Esteban jaunak (BILDU) Luiaondo Padura kaleko lanak zertan datzan jakin nahi du.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ur-sarean haustura bat eta isuri izugarri bat egon zirela San Prudentzio egunean. Baina ur-kontsumoagatik, egun hori baino lehenago isuri hori hor zegoela.

Esteban jaunak dio urbanizazioa Luiaondoko Administrazio Batzarrari entregatu zitzaioela aurretik.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) baietz erantzun du, baina frogatu zela matxura aurretik zegoela eta zenbatekoa sustatzailearen abaletik atera zela, konponbiderik onena zela ikusi baitzuten.

Inork ez du horri buruzko ezer esan, hortaz, Udalbatza jakinaren gainean dago.

16.- Alkatetza dekretu hauen berri ematea:

- **339/15339/15 erref. erref. LIZELAN, SL-** Bide eta errepede nagusien loturetako garbiketa mekanikoaren zerbitzuaren kontratua aldatzea.
- **340/15340/15 erref. erref..-** Kreditu-gaikuntzari buruzko 4/2015 espedientea.
- **341/15 erref..- ADMINISTRAZIO BATZARRAK.** 2015eko jaietarako diru-laguntza.
- **342/15 erref. Etxaurren Haurreskolako arrapala-lanen esleipena.** Lana M.A.M.Ori esleitu zaio.
- **343/15 erref..- MC.L.M.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2015) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **344/15 erref..- J.A.O.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2015) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **345/15 erref..- MA.A.G.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2015) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **346/15 erref..- MA.M.O.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2015) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **347/15 erref..- T.SLU.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2015) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **348/15 erref..- RM.A.S.-** Ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2015) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **349/15 erref..- L.I.S.** % 25eko hobaria ematea 2014ko TMZn, kide anitzeko familiako kide izateagatik.
- **350/15 erref..- JA.V.R.** % 100eko hobaria ematea Ibilgailu Historikoen Araudian izaera historikoa duela aintzakotzat hartuta.
- **351/15 erref. Gasteizko apezpikutzak.-** Zaborren tasen erreziboak itzultzea bat ez etortzeagatik.
- **352/15 erref..- Onestea F/2015/7 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**

- **353/15 erref.-** Onartzea Ur-horniduraren eta Estolderiaren Zerga Erroldak (2015eko 2. hiruhilekoa).
- **354/15 erref.- CONSTRUCCIONES METÁLICAS AIALA SA** Alegazioak aurkezteko epea ematea, legalizatu gabeko tarteko solairuko eraispennan aurretik.
- **355/15 erref. REMAI, SA-** 4. poligonoko 60. lur-zatian mugitzen ari diren lurren lanak geratzeko agindua.
- **356/16 erref.- ETXEGUREN ZERBITZUAK, SLU.-** Kontratu txikien esleipena ETXEGUREN ZERBITZUAK, SLU enpresari, argiteria publikoaren inbentarioa egiteko.
- **357/15 erref.- ETXEGOIENENKO ADMINISTRAZIO BATZARRA.-** Ur-hornikuntzaren sare publikoan aldaketak egiteko lanak egiteko udal-lizentzia ematea.
- **358/15 erref.- TALLERES BANOIA, SL-** Lehenengo isun hertsatzailea jartzea, jarduera-lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileak ez betetzeagatik.
- **359/15 erref.- Izoriako Administrazio Batzarra.-** “Izoriako kalea egokitzeko” obra-zuzendaritzaren ordainsariak finantzatzeko diru-laguntza ematea.
- **360/15 erref.- Olabazarreko Administrazio Batzarra.-** “Eurien kanalizazioak hobetzeko” lan-proiektua idazteko ordainsaria finantzatzeko diru-laguntza ematea.
- **361/15 erref.- Sojoko Administrazio Batzarra.-** “Sojoko bolatokia berreskuratzea” lan-proiektua idazteagatik ordainsaria eta “Ubiarte auzoko bideko pareta indartzea” lana idazteagatik eta zuzentzeagatik ordainsariak finantzatzeko diru-laguntza ematea.
- **362/15 erref.- CORAL IZALDE ABESBATZA.-** Frogatu gabeko diru-laguntzaren zati bat itzultzeko eskatzea.
- **363/15 erref.- FIRMES ALAVESES, SA-** Iburguen auzoko (Araba) “Etxaurren Ikastolaren ingurua eta sarbidea egokitzeko” lanaren abala itzultzea.
- **364/12 erref.- Alkateak bere eskuduntzak eskuordetzea, ezkontza zibila egiteko.**
- **365/15 erref.- AM.P.S.-** Obrarako udal-lizentzia ematea Luiaondon dagoen eraikin bat konpontzeko.
- **366/15 erref.- M.E.Z.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondoko etxebizitza bateko komuna zaharberritzeko.
- **367/15 erref.- H.M.S.-** Luiaondoko lur-zati bateko zola egiteko lanaren lizentzia ematea.
- **368/15 erref.- JM.G.A.-** Lejarzoko bordaren estalkia konpontzeko lanetarako lizentzia ematea.
- **369/15 erref.- FUNDICIONES LOMBIDE, SA-** Irekitzeko lizentziarako dokumentazioa eskatzea.
- **370/15 erref.- ORIXE COMERCIAL,SL-** Zuazako Dorretzeko etxebizitzan lehen okupaziorako lizentziaren dokumentazioa eskatzea.
- **371/15 erref.-** Organo kontu-hartzailearen eragozpena kentzeko dekretua, aldi baterako kontratuen nominak ordaintzeko.
- **372/15 erref.- L.B.M eta U.A.L.** biztanleen udal-erroldan baja emateko espedientea onartzea, behar ez bezala inskribatuta egoteagatik.

- **373/15 erref.- C.O.L.** Biztanleen udal-errolan baja emateko espedientea onartzea, behar ez bezala inskribatuta egoteagatik.
- **374/15 erref.- R.M.B.L.-** Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-ekintzetara joaten diren adingabeen familiei diru-laguntzak ematea.
- **375/15 erref.- J.J.C.C.-** Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-ekintzetara joaten diren adingabeen familiei diru-laguntzak ematea.
- **376/15 erref.- M.G.C.B-** Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-ekintzetara joaten diren adingabeen familiei diru-laguntzak ematea.
- **377/15 erref.- E.G.A.-** Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-ekintzetara joaten diren adingabeen familiei diru-laguntzak ematea.
- **378/15 erref.- X.I.G.-** Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-ekintzetara joaten diren adingabeen familiei diru-laguntzak ematea.
- **379/15 erref.- L.I.S.-** Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-ekintzetara joaten diren adingabeen familiei diru-laguntzak ematea.
- **380/15 erref.- I.L.U.-** Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-ekintzetara joaten diren adingabeen familiei diru-laguntzak ematea.
- **381/15 erref.- A.L.R.-** Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-ekintzetara joaten diren adingabeen familiei diru-laguntzak ematea.
- **382/15 erref.- L.M.M.M.-** Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-ekintzetara joaten diren adingabeen familiei diru-laguntzak ematea.
- **383/15 erref.- B.N.G.-** Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-ekintzetara joaten diren adingabeen familiei diru-laguntzak ematea.
- **384/15 erref.- A.P.R.-** Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-ekintzetara joaten diren adingabeen familiei diru-laguntzak ematea.
- **385/15 erref.- E.R.C.-** Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika eta dantza ekintzetara joaten diren adingabeen familiei diru-laguntzak ematea.
- **386/15 erref.- J-T-H.-** Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-ekintzetara joaten diren adingabeen familiei diru-laguntzak ematea.
- **387/15 erref.- I.M.U.P.-** Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-ekintzetara joaten diren adingabeen familiei diru-laguntzak ematea.
- **388/15 erref.- I.U.P.-** Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-ekintzetara joaten diren adingabeen familiei diru-laguntzak ematea.
- **389/15 erref.- E.Z.R.-** Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-ekintzetara joaten diren adingabeen familiei diru-laguntzak ematea.
- **390/15 erref.- Onestea F/2015/8 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **391/15 erref.- E.Z.R.-** Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika- eta dantza-ekintzetara joaten diren adingabeen familiei diru-laguntza ukatzea, arautzen duen baldintzak ez betetzeagatik.
- **392/15 erref.- V.R.M.-** Llanteko lur-zatiak ixteko lanen lizentzia ematea.
- **393/15 erref.- A.C.A.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondoko etxebizitza bateko leihoak aldatzeko.
- **394/15 erref.- P.B.V.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondoko etxebizitza bateko komuna zaharberritzeko.

- **395/15 erref.- AUTOCARES SOBRON, SL** Erabilera bereziko (eskola erabilera) ohiko garraioari baimena ematea.
- **396/15 erref.- Etxegoieneko Administrazio Batzarra.-** Ur-hornikuntzaren sare publikoan aldaketak egiteko lanak egiteko udal-lizentzia ematea.
- **397/15 erref.- M.V.E.-** Murgan abelgorrien ekintzak legalizatzeko espedientearen aldeko txostena eta jarraipena.
- **398/15 erref.- Fundación Alday.-** Arespalditzako lur-zatira sartzeko lanak egiteko lizentzia ematea.
- **399/15 erref.- Hasieran onestea Luiaondoko 3. poligonoko 1333 lur-zatiko xehetasunen azterketa.**
- **400/15 erref.- JM.U.L. –** Izorian egindako itxituren egurrezko pantaila berrerrabiltzeko lanak egiteko lizentzia ematea.
- **Erref.-401/15.- Etxaurren ikastolako IGE.-** 2015eko Udalekuetara joan ziren umeek ordaindutako kuotei dagokien zenbatekoa ordaintzea.
- **402/15 erref.- RM.M.I.-** Salmantonen abeltzaintza-ekintzak legeztatze dokumentazioa eskatzea.
- **403/15 erref.- Kloratze-instalazioen kontrol-zerbitzuaren esleipenaren prozedurari uko egitea.**
- **404/15 erref.- R.A.C.-** Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak izateko lizentzia ematea.
- **405/15 erref.- Remai, SA-** Lizentziarik gabeko lurak mugitzeagatik espediente zigortzailearen ebazpena.

- Lauren jaunak (BILDU) esan du musika eta dantzarako diru-laguntzen ordenantzak harrera ona izan duela, egon diren eskakizunak kontuan izanik.

Inork ez du horri buruzko beste ezer esan, hortaz, Udalbatza jakinaren gainean dago.

17.- Galderak eta eskaerak.

- Lauren jaunak (BILDU) proposatu du taldeek txikienetik handienera, zinegotzi kopuruaren arabera– normalki horrela egiten delako– euren iritzia ematea.

Zinegotzi guztiak ados daude proposamenarekin.

- Xabier jaunak (AB) uztailaren 15eko 2144 zenbakiko sarrerari buruz galdetu du, 2015eko ekainaren 12ko 13 pertsonen bazkari baten ordainketari dagokiona, udalaren aldetik. Hori dela eta, gastu hori batzorderen batean onartu al den galdetu du eta ea ordaindu den.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du berak alkatetza hartu baino lehenago egindako gastu bat dela eta, hortaz, ordaindu dela.

Xabier jaunak galdetu du zein irizpide erabili ziren gonbidapen hori egiteko.

Gentza jaunak ez dakiela erantzun du.

Josu jaunak adierazi du bazkari bat egin zela agur gisa.

Xabier jaunak (AB) galdetu du zergatik ez ziren Udaleko langile guztiak gonbidatu.

Josu jaunak (BILDU) erantzun du irizpidea legegintzaldiko lau urtetan zehar beraiekin lan egin zuten guztiak gonbidatzea izan zela.

Xabier jaunak adierazi du egokia iruditzen zaiela langileekin bazkari bat egin nahi edo ahal izatea, baina langile guztiak gonbidatu beharko zirela.

- Xabier jaunak (AB) adierazi du, ekainaren 23an kargua hartu behar zuen Gentza Alamillo alkatearekin, Iñigo Pinedo zinegotziarekin eta Aiara Batuzeko hiru kideekin egindako bilera batean, antolakuntza-bilkurari buruz hitz egiteko, kargua utzi behar zuen alkateak, Josu Artetxek, ez zizkiola alkate berriari bere bulegoko ordenagailuaren pasahitzak eman eta behin ordenagailura sartzeko aukera izan zuenean, disko gogorra ezabatuta zegoela konturatu zirela eta idazkariari horri buruz galdetu zitzaionean, horrek esan zuen Josu Artetxek enpresa bat kontratatu zuela disko gogorra garbitu eta ezabatzeko; hori dela eta, Xabier jaunak jakin nahi du ea esan den guztia horrela gertatu zen.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) baietz erantzun du. Bera iritsi zenean eta ordenagailura sartzen saiatu zenean ezin izan zuela, eta jarduera batzuk egin behar izan zirela. Behin ordenagailura sartzea lortu zuenean, ordenagailua hutsik zegoela ikusi zuen; hala eta guztiz ere, ordenagailuak zerbitzarira sartzeko baimena du eta bertan datu orokorrak daude.

Xabier jaunak galdetu du ea disko gogorra ezabatu zuen enpresa Udalak mantentze informatikorako kontratatutakoa zen.

Gentza jaunak ezetz erantzun du, Algitech enpresaren faktura bat iritsi baita lan horiek egiteagatik.

Xabier jaunak galdetu du ea enpresa horrek Udalarekin konfidentzialtasun-klausula bat sinatuta daukan datu horietara sarbidea izateko.

Gentza jaunak ez dakiela erantzun du.

Xabier jaunak adierazi du isilpeko informazioarekin kontaktuan egon behar den edonork sinatu behar duela dokumentu hori, guztiok egin dugun bezala, informazioaren tratamenduaren ardura izateko. Hortaz, enpresa horrek dokumenturik sinatu ez badu, Datuen Babeserako Euskal Agentzian salaketarik jarri ote den jakin nahi du.

Gentza jaunak ezetz erantzun du. Ez dakiela zein dokumentazio zegoen ordenagailu eramangarrian, hortaz, ez dagoela oinarri nahikorik salaketa jartzeko.

Lauren jaunak (BILDU) esan du ekipo hori Alkatearen ordenagailu pertsonala dela, udalekoa izan arren, eta logikoena dela kargua utzi behar duenean ordenagailua garbitzea eta egon daitezkeen dokumentu pertsonal guztiak ezabatzea.

Xabier jaunak baietz esan du. Dokumentu pertsonalak ezabatzeko eskubidea duela, baina udalak jada bazuela enpresa bat kontratatuta mantentze informatikorako eta enpresa horri deitu beharko zitzaiola eta ez kanpoko enpresa bati; izan ere, enpresa horrek isilpeko informazioa ikusi ahal izango zuen datuen babes- eta konfidentziasun-klausulak sinatu gabe.

Nerea andreak (BILDU) esan du gaia adierazi den moduan zerbait larriagatik salatzen ari zaiela. Agian akatsa beste enpresa bat aukeratzea izan zen, baina helburu bakarra garbitzea eta dokumentu pertsonalak ezabatzea izan zen.

Xabier jaunak (AB) esan du uztailaren 7ko 2418 zenbakiko sarrera bat dagoela, Aiara Batuzen idatzi bat, udaleko arkitektoaren idatzi bati erantzunez eta udalak ez dio erantzun, erantzun behar al duen galdetu du.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ez dela idatziz erantzun, baina zerbait egin dela. Iraidarekin eta Alvarorekin bilerak egin dira banan-banan eta beste bat batera, ados jartzeko eta errespetuz eta zintzotasunez lan egin behar dela ulertzeko eta batzorde bakoitzeko burua izango dela sortu daitezkeen arazoak konpontzen dituen.

Xabier jaunak esan du dokumentu hori bilkurako aktari eranstea gustatuko litzaiokeela.

Idazkariak esan du ez dela egokiena aktari dokumentuak eranstea. Dokumentuak espedienteetan daude eta ez dira aktetara erantzen. Momenturen batean dokumentu bat erantsi edo transkribatu bada, bilkuran irakurri edo eztabaidatu direlako izan da.

Gentza jaunak esan du egokiena gai horrekin ez luzatzea dela, lan egin eta aurrera egin behar dela, hirigintza-zerbitzuak eskertuko duela.

- Josu jaunak (BILDU) toki-birmoldaketagatik galdetu du, zer egin behar den jakin nahi du.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ez duela uste egin nahi diren lanek arazoak konponduko dituztenik. Beraiek ez daude ados herritarren arreta beheko solairutik kentzearekin.

Josu jaunak adierazi du erabaki hori ohiko bilkuran hartu zela BILDU, EAJ-PNV eta Udaleko langileen oniritziarekin; eta iritzi-aldaketa horrek harritu egiten duela gaiaz eztabaidatu gabe.

Gentza jaunak erantzun du gobernu-taldea aldatu egin dela eta orain ez daudela ados herritarren arretarako zerbitzua lehenengo solairura lekualdatzearekin. Zerbait erabaki behar denean langileekin eta gainontzeko talde politikoekin hitz egingo da.

Lauren jaunak (BILDU) adierazi du espazioa nahiko mugatua dela. Logikoena guztiak beheko solairuan egotea izango litzateke, baina hori ezinezkoa da.

Esteban jaunak (BILDU) galdetu du ea teknikariak proiektua aurkeztu duen.

Iñigo jaunak (EAJ-PNV) ezetz erantzun du, oraindik ez duela entregatu.

Esteban jaunak galdetu du proiektua, enkargatu den moduan, gelditu egin ote den.

Gentza jaunak baietz erantzun du, proiektuari buelta ematen ari direla.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-presidenteak bilera bukatutzat eman du zortziak eta hogeit hamar minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamabosteko irailaren hogeita lauan.

OE
ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA,

Izpta.: Gentza Alamillo Udaeta

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.



Aiarako Udalak Ayuntamiento de Ayala		
Data	10 SEP 2015	Fecha
Sarrera Entrada	3329	Irteera Salida

ENMIENDA DEL EAJ/PNV A LA MOCIÓN DE BILDU SOBRE LAS HERRIKO TABERNAK

D Gentza Alamillo Udaeta, portavoz del Grupo Municipal del EAJ/PNV en el ayuntamiento de Ayala, al amparo del Reglamento vigente, presenta la siguiente ENMIENDA a la Moción de BILDU sobre las Herriko Tabernak.

El EAJ/PNV considera que la sentencia hecha pública en relación al denominado caso de las Herriko Tabernak es un fallo judicial del pasado, sustentado en la excepcionalidad y que tiene como base argumental "todo es ETA", unos criterios que no hemos compartido nunca.

Para el PNV el fallo judicial conocido vuelve a ser un paso atrás en el proceso de normalización política que vive Euskadi. No se entiende que doce años después de que se comenzara la instrucción del procedimiento, se llegue a un pronunciamiento judicial diverso, condenando a unos y absolviendo a otros procesados por una causa aparentemente idéntica.

En este sentido, resulta inaudito el criterio dispar utilizado. Si todo era ETA, ¿cómo entender que se penalice a unos y a otros no?.

Desde el EAJ/PNV, vemos nuevamente un cierto impulso político en la decisión de la Audiencia Nacional, impulso que debiera haber desaparecido ya. Por ello, creemos que es tiempo de superar inercias del pasado y trabajar por asentar la paz y la convivencia en Euskadi.

ENMIENDA.

1.- El Ayuntamiento de Ayala expresa su más absoluto rechazo al sumario 35/02 y advierte de la necesidad de su sobreseimiento y archivo inmediato.

2.- El Ayuntamiento de Ayala reconoce la nueva situación política y exige la erradicación de actuaciones que recuerdan al pasado en aras de mejorar la convivencia y que permitan dar pasos firmes en la consolidación de la paz.

2.- El Ayuntamiento de Ayala comunicará este acuerdo a la Delegación de Gobierno del estado en Euskadi.

En Respaldiza., a 9 de Septiembre.de 2015.



FDO.....

AUZITEGI GORENAK 35/02 HERRIKO TABERNEN AUZIAREN INGURUAN HARTU DUEN ERABAKIAREN AURREAN, AIARAKO UDAL BATZAK HONAKO ADIERAZPENA ONARTZEN DU:

Bizitzen ari garen oso itxaropentsu diren une giza-politiko berri hauetan, instituzioak eta erakundeak, Euskal gizartea bere osotasunean, aho betez nabarmendu dute orain salatzen dugun honelako makro-epaiketaren antzeko prozesuek ez dutela inolako lekurik, iraganeko argazkiak direla.

Duela hamabi urte eta “Dena da ETA” teoria eta partiduen legearen aitzakipean, 35/02 epaiketa ireki zen eta honen eskutik, egunkarien itxierak, talde politikoen ilegalizazioak eta hainbat pertsonen atxiloketak etorri ziren. Eskubide zibil eta politikoen urraketa nabari honek, bai nazio zein nazioarteko mailan mota ezberdinateko hainbat erakunde zein banakakoen kontrazko mespretxu argia adierazi egin du.

Egunotan, oraintsu emandako epaitzaren bitartez, 104 herriko tabernen itxiera eta hauen ondasunen konfiskazioa gauzatu da, besteak beste gertu daukagun Amurrioko TxokoGorri bera; neurri berberaren ondorioz ere hainbat pertsonen atxiloketa etorri da politika egiteagaitik soilik.

Guzti hau dela eta, EHBilduk aldarrikatu nahi du:

-Bizitzen ari garen honelako egoerek gure Herriaren eskubide zibil eta politikoen defentsan atzerantz pausuak ematea suposatzen dutela.

-Eta hori horrela izanik Aiarako zinegotziek gure elkartasuna adierazi nahi diegu kaltetuak suertatu direnei. Espazio fisikoa, kulturala, politikoa, errferentziala suntsitu nahi dute. Topagune libre eta herritarrok sortutakoa da likidatu nahi dutena

-Sendo salatu nahi dugun egun hauetan bizitzen ari garen moduko prozesuak ez datozela bat, inoiz baina are eta gutxiago gaur egun, Euskal Herria bizitzen ari den egoera politikoarekin, alegia, gure Herrian bidezkoa eta iraunkorra izango den pakearen oinarriak gogortzen hasi den uneetan. Aiarako Udaletik mota honetako jokabideak ezabatzeko lan egingo dugula, eskura ditugun baliabide guztiekin, hitzematzen dugu.

Aiarako Udaltzako, aiarar guztion ordezkaria den heinean, adierazpen honen berri Auzitegi Gorenari eta Espainiar Gobernuari bideratuko dio.

Adierazpen honen berri Aiarako herriari emango zaio.

ANTE LA RESOLUCIÓN DEL TRIBUNAL SUPREMO 35/02 RELACIONADA CON LAS HERRIKO TABERNAK, EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE AIARA QUIERE REALIZAR LA SIGUIENTE DECLARACIÓN:

En estos nuevos momentos políticos abiertos a la esperanza que vivimos, las instituciones y organizaciones, la sociedad vasca en su conjunto, han evidenciado de forma abierta que macro-juicios políticos como este que ahora denunciarnos, no tienen sitio en nuestra sociedad, que son fotografías del otro tiempo.

Bajo el pretexto de la teoría del “todo es ETA” y la ley de partidos se inició, ahora hace algo más de 12 años, el juicio 35/02. De la mano de este procedimiento vinieron entonces asociados cierres de periódicos, ilegalizaciones de grupos políticos y la detención y el encarcelamiento de cientos de personas. Esta violación manifiesta de los derechos civiles y políticos ha supuesto un evidente desprecio de entidades de todo tipo, tanto públicas como privadas, que han tomado parte en el proceso tanto a nivel nacional como internacional.

Ahora a través de la sentencia recientemente fallada se ha producido el cierre y la confiscación de bienes de 104 herriko tabernas, entre ellas la cercana TxokoGorri de Amurrio y la imposición de penas de cárcel a una serie de personas por el mero hecho de hacer política.

Por todo esto, el grupo municipal de EHBildu de Aiara quiere manifestar lo que sigue:

-Que situaciones como ésta que vivimos suponen un paso atrás clarísimo en la defensa de los derechos civiles y políticos de nuestro pueblo.

-Las concejales y concejales del Ayuntamiento de AIARA queremos mostrar nuestra solidaridad tanto con las asociaciones como con los asociados y asociadas, trabajadores y trabajadoras, de los establecimientos que han resultado afectados. Quieren cerrar el local de Txokogorri de Amurrio un espacio físico, cultural, político y referencial para Amurrio Un centro de encuentro libre y creado por los y las vecinas del pueblo es lo que quieren liquidar.

-Que procesos como el actual, que queremos denunciar firmemente, no tienen encaje, en ningún caso, pero menos en una nueva situación política como la que hoy vive Euska Herria, momentos en los que se están fraguando los cimientos de una paz justa y duradera en nuestro pueblo. Desde el Ayuntamiento de AIARA nos comprometemos a trabajar, con los medios a nuestro alcance, en pos de la erradicación total de este tipo de actuaciones.

El Ayuntamiento de AIARA, en la medida que detenta la representación de todos sus ciudadanos y ciudadanas, dirigirá la presente declaración, para su conocimiento, tanto al Tribunal Supremo como al Gobierno español.

-Asimismo la presente declaración será comunicada al Pueblo de AIARA.